

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Ana Etxaide Itarte

*Donostia,
Gipuzkoa
(1936)*

Aurkibidea



Biografia



Ategorrietako Aldatzain etxaldean jaio zen. Aita Donostiakoa zuen; injeniaria, telefonoa automatizatzen egiten zuen lana, eta kultur jardueratan ere parte hartzen zuen eta Euskaltzaindiako buru izan zen. Ama Zumarragako familia on batekoa zen. Bederatzi anai-arreba ziren, bat umetan hil zelako. Ana Mari txikiena zen, eta hogeituroko aldea zuen zaharrenarekin. Zortzi urterekin hasi zen eskolan, Notre Dame ikastetxean, moja frantsesekin; etxean, anai-arrebak zituen irakasle. 11 urte zituenean ama hil zitzaion. Ikasten jarraitu zuen: Filologia Erromanikoa egin zuen Bartzelonan. Bueltan, Zubieta liburudendan egin zuen lana, Donostian. 1964an tesia egin zuen, Koldo Mitxelenak gidatuta, eta eskolak ematen hasi zen Nafarroako Unibertsitatean. Oposaketak atera, eta bost urtez Compostelako Santiagon egon zen. Gero, Iruñera itzuli zen, eta irakasle ibili da erretiroa hartu arte. Euskararen gaineko hainbat ikerketa egin eta argitaratu ditu. Euskaltzain urgazlea da. Jon Etxaide anaia idazle ezaguna izan zen; Rafael anaia arkitektoa da.

Zintak

DON-051

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2009-10-30
- **Iraupena:** 131 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Zumarragako oroitzapenak

- **Erref:** DON-051/004
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:07:10. **Bukatu:** 00:09:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Anaren aita Donostiakoa zen, eta ama, berriz, Zumarragakoa. Amarekin Zumarragara joan ohi zen izebak bisitatzerako. Zumarragara joaten zeneko oroitzapenak: "kolunpioa" (kulunka), izebareneko panpin-etxea eta Ormaiztegi zubia gurutzatzea.</p>

Transkripzioa

- Ama Zumarragakoa zen. Aita Donostikoa, baiña ama Zumarragakoa, Itarte. Hori bai, joaten nitzan amarekin Zumarragara, joaten nitzan nahiko, izebak ikustera. Eta hantxe, ba, neri gustatzen zitzaidan asko... Bi gauza zittuen Zumarragak neretzat, ez? Bat, kolunpioa. Kolunpio on bat. Etxean ez genuen behin ere izan. Nahiz eta jardiña eduki-ta ez genuen behin ere izan kolunpio on bat. Jartzen zittuzten sokak zuhaitz batetik, baiña ez ziren /etziren/ iñoiz ongi geratzen. Eta izebak zuen kolunpio bat, baiña egiña, ondo egiña. Ta neri hori gustatzen zitzaidan asko. Ta beste gauza bat zen muñekan etxe bat. Hori, horixe da, hortxe daukazun armario hori da. Hori lehen zen muñekan etxia. Gero asko zahartu zen barrutik, ez?

- Hau?

- Hori, bai. Bueno, hori zan... egitan ez da muñekan etxe bat, hori da armariotxo txiki bat, ez? Baiña han sartu zuten, ba, ez dakit, ekarrita... kanpotik ekarrita muñekan etxe bat eta gero osatu zuten beste parte batzuekin eta gaiñera... Ama gelditzen zen izebarekin hitz egiten eta ni beti muñekan etxean edo kolunpioan. Bietatik bat. Eta horregatik beti... ni oroitzen naiz beti esaten niola, amari esaten nion: "Ama, noiz goaz Zumarragara?". Eta beste gauza bat zen Ormaiztegi zubia pasatzea trenian. Hori gustatzen zitzaidan izugarri. Amak esaten zidan, ez dakit, ba, esaten zidan oso kontu xeble bat: erori zela baserritar bat zubitik behera eta blusa beltzak egin ziola parakaidas bezela eta ez zitzaiola ezer gertatu. Halako kontuak, ez? Halako oroitzapenak dituzu lehen kontatzen zirenen gauzetaz. Bueno, ez du inportantzirik, baiña...

2. Notre Dame ikastetxe frantsesean

- **Erref:** DON-051/007
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:14:52. **Bukatu:** 00:17:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Ategorrietan, Notre Dame ikastetxean ikasi zuen. Mojak frantsesak ziren eta neskendako ikastetxea zen. Batxilergo guztia beste bi lagunekin bakarrik egin zuen. Gutxi ziren.</p>

Transkripzioa

- Esan duzu zortzi urtekin hasi ziñala ikastetxe baten. Eta nun? Nora joaten ziñan zu?
- Oain kendu dute ikastetxe hori. Ategorrietan, Notre Dame. Entzun dezu? Hantxe dago! Etxea hantxe dago. Edifizioa hantxe dago. Oain, ez dakit, zerbait sartu dute hor, ez dakit zer den, eskolaren bat, baiña ez dakit zer, baiña ez haurrentzat, e? Ez, baizik... ez dakit zer daukaten. Badakizu nun daon... Ez dakizu hori ere, ezta? Angeles Custodios ez dezu entzun, ez? Ba, Ategorrietan bertan, erlojuan parean. E? Erlojuaren parean. Da hola pixkat etxe bat holaxe.
- Etxe zuri-gorri bat dago hor...
- Beira, dao Alcalde Elosegui; hasten den lekuan... Alcalde Elosegui... Donostitik begiratuta, daukazu hemen Alcalde Elosegui eta hemen dao Notre Dame. Ta gero Calzada Vieja esaten zaio txikiari. Uste det Calzada Vieja zela. E? "De Ategorrieta" edo ez dakit nola.
- Hori zer zen neskendako ikastetxe bat?
- Bai, bai, ez zeon besterik, denak separatuak giñen. Neskendako, bai. Frantsesak zian monjak.
- Mojak zian.
- Monja frantsesak. Angelun daukate etxea eta hemen zeukaten ikastetxe hori. Ez zan ikastetxe haundiya, e? Gutxi giñen. Eta, batez ere, batxilleratoa egiten genuenak oso gutxi. Nik batxillerato guztia egin det, ba, bi lagunekin, beste bi lagunekin. Eta besteak joaten ziren egitera ba... nola esaten zitzaion horri? "Cultura general". Bueno, "cultura general", baiña azterketarik gabe. Bueno, ikastetxean igual egingo ziren azterketak, baiña ez ziñan joaten... Gu joaten giñan institutora azterketak egitera.
- Batxillerrekoak?
- Batxillerrekoak. Bai. Zan kolegioa, lehen esaten zuten "semi-reconocido". E? Orduan, batxilleratoko hirugarren urtea arte ikastetxean egiten zenittuen azterketak eta laugarrenetik aurrera joan behar zenuen institutora egitera azterketak. Eta hara joaten giñen. Eta gero rebalida. Rebalida. Azkeneko rebalida egin det nik, azkenekoa.

3. Larunbatetan ere klaseak

- **Erref:** DON-051/012
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:26:48. **Bukatu:** 00:30:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Astelehenetik larunbatera izaten zituzten klaseak, goiz eta arratsalde. Igandeetan mezetara joaten ziren Jesuiten ikastetxera.</p>

Transkripzioa

- Mojak oso zorrotzak zian? Diziiplina gogorra zeon? Jo eta hola egiten zuten?

- Ez, ez, ez, inolaz´e, ez, ez, ez. Ez, ondo, normal. Hori bai, ez pentsa zela oraingo ordutegiakin. Gero, lehen esan didazunian oroitu naiz: gu joaten giñan ikastetxera larunbatak ere bai, arratsaldean ere bai. Larunbat arratsaldetan bukatzen genuen bi ordu lehenago, zazpietan irten beharrean bostetan irtetzen giñan. Baiño larunbata eta guzti, e?

- Orduan, igandea bakarrik jai?

- Igandea bakarrik jai.

- Eta igandean mezetara?

- Bueno, jakiña! Jakiña! Baiña hori normala, e? Oain ere bai, e! Horregatik...

- Eta nora joaten ziñaten mezetara?

- Beira, mezetara joaten giñan, ba, bertan genituen elizetara. Hantxen zeuden konbentu asko eta leku asko meza entzuteko. Baiño joaten giñen batez ere jesuiten kolegiara, ikastetxera, mutillena. Badakizu nun daon, hortxe, Jaialaien, hor, Abenida Navarran azkeneko... bueno, hasieran; ez, azkenian. Han joaten giñan ikastetxera. Eta han zuten... Jakiña, nere anaiak denak joan ziren... Denak ez. Zaharrenak joan ziren marianistetara. Orduan jesuitak itxita zuten ikastetxea, ba, ez dakit, bota zituzten, bueno, izan zuten problemak. Baiño hirugarrenetik aurrera uste det izan zela joan ziren denak jesuitetara. Genittuen nahiko bertan, hantxe, etxetik bertan genittuen. Eta ama ere joaten zan asko hara. Eta bederatzitan izaten zuten meza, ba, mutillak, ikasleak izaten zuten meza. Eta zeukaten kapillatxo bat luze-luze-luze-luzia. Hola, karratua, baiña luze-luze-luze-luzia. Eta atzian jartzen giñan, ba, han ondoan bizi ziren familiak eta hola. Bueno, pues señora batzuk, andre batzuk haurrekin eta. Eta ni joaten nitzan amarekin. Ama konfesatzen zen, aitortzen zen hango jesuita batekin, ez dakit ezagutuko zenuen —oso ezaguna zen, nik uste det— Aita Migel Zubiaga. Hango irakaslea zen. Eta gero nik ere lehenengo jaunartzea han egin nuen eta Aita Zubiagarekin. Berak prestatu ninduen.

4. Jaunartzea eta ondorengo gosaria

- **Erref:** DON-051/013
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:30:00. **Bukatu:** 00:31:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:

<p>Etxean euskaraz bizi ziren. Jaunartzea jesuitetan egin zuen. Baraurik egin behar izaten zuten eta orduan ospakizuna gosaria izaten zen, etxean familiarekin.</p>

Transkripzioa

- Eta euskeraz hitz egiten zenuen Aita Zubiagarekin?
- Bai, nik dena euskeraz egin nuen, ba, nik uste det ia-ia ikastetxera joan arte. Dena euskeraz. Etxian dena euskeraz. Etxian hizkuntza ofiziala zen euskeraz. Orduan, egongelan eta jangelan eta beheko partian —genun villa bat, hiru bizitza zittuen—denak egiten genuen euskeraz. Oain, goian zer egiten zen hori ez dakigu. Baiña anai-arreben artian ya... Baiño nik dena euskeraz egiten nuen zortzi urte bete arte. Dena euskeraz. Eta... zer esatera nijuan?
- Bai, jaunartzea han egin zenula.
- Han egin nuen jaunartzea.
- Zubiagak prestatuta.

- ... prestatuta. Uste det izango zala goizeko bederatzitan. Eta gero etxea gosaltzea. Eta gosaria [eman...]etxian. Horrela. Ez zeon... Bueno, lehen jaunartzea ere in behar zenuen barautan, horregatik hamabietatik ezin zenuen ezer hartu jauna hartu arte. Horregatik, jakiña, normalean egiten zen gosaria. Zelebrazioa zan gosaria. Eta, bueno, familiakin, lehengusuak eta... hori. Etxian.

5. Aita ingeniaria

- **Erref:** DON-051/014
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:31:26. **Bukatu:** 00:33:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Beste batzuk
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aita ingeniaria zen. Telefonoaren automatizazioaz arduratu zen Gipuzkoan, Aldundirako langilea zen.

6. Etxean euskaraz egiteko erabakia

- **Erref:** DON-051/015
- **Iraupena:** 0:03:41. **Hasi:** 00:33:42. **Bukatu:** 00:37:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

Etxeko giroa. Aitak bere gogoz ikasi zuen euskaraz eta erabaki zuten etxean euskaraz egitea. Amari kostatu egiten zitzaion gehixeago.

7. Aitak zaletu zuen Jon (Etxaide) idaztera

- **Erref:** DON-051/016
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:37:23. **Bukatu:** 00:39:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Erabiltzen zuten euskara ez zen oso aberatsa. Gerora anai-arreba batzuek gehiago landu dute. Anai zaharrenaren arabera, aita erregionalista zen, euskaltzalea ere bai. Bere anaia Jon (Etxaide) zaletu eta bultzatu zuen idaztera.

8. Gramatika ikasten Jonekin

- **Erref:** DON-051/017

- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:39:39. **Bukatu:** 00:41:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara

Laburpena:

Bere anaia Jonek euskararen gramatika erakusten zien, aitek hala proposatuta.

9. Jon Etxaide anaiaren hastapenak

- **Erref:** DON-051/019
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:43:15. **Bukatu:** 00:46:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Euskaraz gutxi baina bazegoen argitaratzerik gerra ostean. Liburuak argitaratzeko baimenak oso zorrotzak ziren. Aitek aldizkari batzuetan idazten zuen eta bere anaia Jonen idazlanak ere argitaratzen zituzten. Alostorrea izeneko liburua izan zen lehenengo argitaratu zuena, 1950ean. Euskarazko testua eta itzulpena bidali behar izaten zen zentsurara. Beti eragozpenak izaten ziren.

10. Jon Etxaide eta Juan San Martin lagunak

- **Erref:** DON-051/020
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:46:10. **Bukatu:** 00:49:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Bere anaia Jonek bazuen euskal giroa: Juan San Martinekin asko ibiltzen zen. Mendigoizaleak ziren biak. Norteko geltokian bertan meza entzun eta goizean goiz abiatzen ziren.

11. Jon anaiarekin euskal kanta ikasten

- **Erref:** DON-051/021
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:49:00. **Bukatu:** 00:50:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Euskal giroan murgildua, bere anaia Jonek euskal kanten liburuxka bat ekarri zion; Anak pianoarekin jotzen zuen eta Jonek kantuak hobeto ikasten zituen.

12. Miaketa eta beldurra

- **Erref:** DON-051/022
- **Iraupena:** 0:03:49. **Hasi:** 00:50:47. **Bukatu:** 00:54:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Bere anaia Jon kartzelan izan zen aldizkari batzuk zabaltzeagatik. Miaketa egitera etorri ziren etxera behin. Beldurrez izaten ziren etxean miaketa gehiago izango ote zituzten, baita etxean zuten elikagai biltegitxoagatik ere, ezkutuan ekarritakoak izaten baitziren.

13. Hernanira txokolate bila

- **Erref:** DON-051/024
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:57:43. **Bukatu:** 01:00:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak

Laburpena:

Aitak baserria erosi zuenerako bazuen kotxea baina gerran kendu egin zioten. Gerora kotxerik gabe, tranbian joaten zen amarekin Hernanira txokolate bila. Txokolate blokeak izaten ziren, matxetearekin mozten zuten eta giltzapean gorde.

14. Errazionamenduarekin ogi gutxi

- **Erref:** DON-051/025
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 01:00:07. **Bukatu:** 01:02:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

<p>Ogia etxean egiten zuten. Irina zahiarekin nahasten zuten astebarruan eta igandetan ogi zuri-zuria jaten zuten. Errazionamenduan hiru kartilla mota zeuden eta beraiek lehen mailakoa zuten eta ogi gutxiago jasotzen zuten.</p>

15. Aita "La Cruz" aldizkariko zuzendari

- **Erref:** DON-051/027

- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 01:04:31. **Bukatu:** 01:07:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

"La Cruz" izeneko aldizkariko zuzendaria izan zen. "Juventudes Integristas" izeneko taldeei klaseak ematen zizkien. Kristaua zen eta ardura izaten zuen gazteak hezteko. "Círculo Integrista"koa zen.

16. Zaragozako unibertsitatean kale

- **Erref:** DON-051/028
- **Iraupena:** 0:04:09. **Hasi:** 01:07:19. **Bukatu:** 01:11:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Bere ahizpek merkataritzako perito ikasketak egin zituzten. Bere ikastetxean unibertsitaterako sarrera gainditzeko prestatzen hasi ziren eta bertan aritu zen. Zaragozara joan zen unibertsitatera baina ez zegoen nahikoa prestatuta.

17. Bartzelonan filologia erromanikoa

- **Erref:** DON-051/029
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 01:11:28. **Bukatu:** 01:12:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Zaragozara joan eta hilabetera, aita gaixotu eta hanka moztu behar izan zioten. Ez zen gehiago Zaragozara joan. Bartzelonara joan zen hiru urtez unibertsitatera filologia erromanikoa egitera, han bi anai zituelako lanean.

18. Euskal Hizkuntza eta Kulturaren katedra

- **Erref:** DON-051/031
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 01:15:24. **Bukatu:** 01:17:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Antonio Fontan aurkeztu zioten Iruñeara joan zenean. Hark jarri zuen martxan Nafarroako Unibertsitatean Euskal Hizkuntza eta Kulturaren katedra 1963an eta Joxe Migel Barandiaran tarteko zen. Anak euskaraz bazekienez, euskal hizkuntzaren klaseak emateko eta gaztelaniako laguntzaile izateko hartu zuten.

19. Euskal Hizkuntza eta Kulturaren katedran irakasle

- **Erref:** DON-051/032
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 01:17:32. **Bukatu:** 01:19:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Euskal Hizkuntza eta Kulturaren katedra doakoa zen ikasleentzat, Aldundiak laguntzen zuelako. Lehenbizi hiru ikasle zituen: Euskaltzaindiakoa bata, okulista ezagun bat bestea eta Ebroko Konfederazioan lan egiten zuen beste bat.

20. Katedra euskara eta euskal gaian lantzeko

- **Erref:** DON-051/033
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 01:19:54. **Bukatu:** 01:22:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Oposaketak eta tesia egin ostean, Santiago de Compostelara joan zen. Katedra hasi berritan, ez zegoen Nafarroan euskaltegirik; beraz, jende asko hasi zen matrikulatzen. Etniker bertan sortu zen.

21. Nafarroako Atlas Linguistikoa

- **Erref:** DON-051/039
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 01:36:51. **Bukatu:** 01:39:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Bilketa linguistikoa » Gramatika
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

Nafarroako Atlas linguistikoa egiteko lehenbiziko inkestak egitera Fontanek bultzatu zuen. Koldo Mitxelenarekin egin zuen tesia. Plan bat egin zuten, euskalkien arabera sailkapen bat oinarri hartuta.

22. Nafarroako Atlas Linguistikorako inkestak

- **Erref:** DON-051/040
- **Iraupena:** 0:04:13. **Hasi:** 01:39:54. **Bukatu:** 01:44:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Euskara » Bilketa linguistikoa » Gramatika

Laburpena:

<p>Magnetofono eta mikrofono batekin egiten zituzten inkestak herriz herri. "Proyecto Atlas Lingüístico Vasco" izenarekin argitaratu zuten. Euskaltzaindia Atlas Linguistikoa egitekotan zebilela, berak ere parte hartu zuen.</p>

23. Aita Euskaltzainburu, Ana urgazle

- **Erref:** DON-051/041
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 01:44:07. **Bukatu:** 01:46:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Euskaltzaindiako Atlas Linguistikoa egiten parte hartu du. Anaren aita Euskaltzainburu izan zen hamaika urtez. Ezagutzen zituen Euskaltzaindiakoak. Urgazle izendatu zuten, ohorezko izendapena eta laguntzaile izateko ere bai. Dialektologia sailean sartu zuten Ana.

24. Azkueren lanak ikertzen

- **Erref:** DON-051/042
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 01:46:54. **Bukatu:** 01:50:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

Resurreccion Maria Azkuek gerra aurretik egindako inkesta batzuk eginak zituen eta kuadernotxo horiek Euskaltzaindiak zituen, "Erizkizundi hirukoitza" izenekoak. Mitxelenak proposatuta, Anak aztertu egin zituen dialektologiarako baliagarri izango zirelako. Euskaltzaindiak argitaratu zuen gero.

25. Azkueren inkestak berrargitaratzen

- **Erref:** DON-051/043
- **Iraupena:** 0:03:53. **Hasi:** 01:50:33. **Bukatu:** 01:54:26

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

R.M. Azkuek hasitako inkestak aztertu zituen Anak eta ondoren Euskaltzaindiak argitaratu egin zituen, mapak alde batetik eta testua bestetik. Ordenagailua bazegoen arren, eskuz egin zuen dena.

26. Elebitasuna aztertzen

- **Erref:** DON-051/044
- **Iraupena:** 0:04:05. **Hasi:** 01:54:26. **Bukatu:** 01:58:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Elebitasunari buruzko lanak eginak ditu Anak; tesia egiterakoan hasi zen Koldo Mitxelena bultzatuta. "Languages in contact" liburua izan zen oinarria, euskara eta gaztelaniaren eragina bata bestearen gainean aztertzeko. Orioko herriko egoera aztertu zuen.

27. Koldo Mitxelena buruargia eta gaitasun handikoa

- **Erref:** DON-051/046
- **Iraupena:** 0:04:22. **Hasi:** 02:01:05. **Bukatu:** 02:05:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Koldo Mitxelena buruargia, lanerako gaitasun handikoa eta gauza berriak ikusteko gai zen. Oso zaila zen bere azalpenak ulertzea.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-15

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com